

## **Deustuko Unibertsitatea eta Bizitegik “Gizarte bazterkerian dauden emakumeei laguntza: jardunbide egokiak” Jardunaldia antolatzen dute**

Hurrengo **ekainaren 1.an** Deustuko Unibertsitatean “Gizarte bazterkerian dauden emakumeei laguntza: jardunbide egokiak” Jardunaldia ospatuko da, **Deustuko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea** eta **Bizitegirekin** antolatuta. Bilboko Kanpuseko **Auditorioan 9:15etatik 13:30ak arte** izango da, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Sailburua, **Beatriz Artolazabal**, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Diputatua, **Teresa Laespada** eta, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko Zinegotzi Ordezkarria, **Iñigo Pombok** inaugurazio ekitaldia zabalduko dute.

Jardunaldi honetan, Bizitegik egindako, **Sonia Carrasco** gizarte ikertzaileak zuzendutako eta Deustuko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko irakasleak, **Itziar Gandarias** eta **Miguel Ángel Navarroren** kolaborazioarekin egindako “Emakumeak eta Bizitoki-Bazterketa” txostena aurkeztuko da.

Honen ostean, gizarte bazterkerian dauden emakumeekiko laguntza jardunbide egokien esperientzia desberdinak aurkeztuko dira. Bartzelonako, Osasuna eta Komunitate Fundazioaren Koordinatzaileak, **Aura Roig Fortezak**, “Metzineres” proiektua azalduko du, non drogen kontsumitzaile eta indarkerien aurka bizirik dirauten emakumeentzako ingurune babestuak eskaintzen dira. Madrilgo Moradas Elkartearen elkarre-burua, **Laura Carrasco Floridok**, etxegabeko emakumeekin duten gizarte esku-hartze proiektua aurkeztuko du. Azkenik, Madrilgo Konplutense Unibertsitateko irakaslea, **Sonia Panadero Herrero**,

---

**Departamento de comunicación –Komunikazio Saila**

Para solicitar entrevistas pueden ponerse en contacto/ Elkarriketak kudeatzeko harremanetan zaitez:  
688 854 886 - [jornadasgiap@gmail.com](mailto:jornadasgiap@gmail.com)

etxegabeko emakumeekin sintomatologia emozionalen taldeko eskuhartze psikologikoko proiektua deskribatuko du.

Giza bazterkerian dauden pertsonekin egiten den lana, gaur egun ikerketa eta etengabeko hobekuntza objektua izaten jarraitzen du. Begirada sakontzea eta **gizarte bazterkerian** dauden emakumeetan arreta jartzea beharrezkoa da, **diskriminazio bikoitza** sufritzen baitute; alde batetik, haien bazterkeria egoera dela eta, bestalde, emakumeak direlako. Maskulinizatutako arlo honetan emakume hauek hain ikusgaitasun gutxi izateak, **interbentzio psikosozialetik** haien **laguntzaren** inguruan esploratzea eta hausnartzea ezinbestekoa izatea egiten du.

Kolaboratzaileak:



---

**Departamento de comunicación –Komunikazio Saila**

Para solicitar entrevistas pueden ponerse en contacto/ Elkarrizketak kudeatzeko harremanetan zaitetz:  
688 854 886 - [jornadasgiap@gmail.com](mailto:jornadasgiap@gmail.com)